**INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA**
**(22.04.05)**

INGURUMENEKO HIRI ZERBITZU ETA INGURUMEN KALITATE ZERBITZUA ZINEGOTZI ARDURADUNA:
JOSEBA ARREGI jn.

INGURUMENEKO TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jn.

FOROKO IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA and.

AHOLKULARIA:
EUGENIA ATIN and.

BERTARATUTAKOAK:

XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona)
MAITE FERNANDEZ and. (Basozaleakeko ordezkaria)
JAVIER LOIDI jn. (Unibertsitate munduko pertsona)
EMILIO MARTINEZ jn. (Julio Caro Baroja Eskolako Agenda 2030)
ANDEKA ZUBIAUR jn. (Aixerrota Eskolako Agenda 2030)
KARMELE URQUIJO and. (Gizatiarreko ordezkaria)
IÑIGO PAMPIN jn. (Lantegi Batuak)

Honako hauek ezin etorria azaldu dute:
JANIRE OCIO and. (Hirigintza, obra eta zerbitzu arloko zinegotzia), JUANJO QUIÑONES jn. (Urtealaiakeko ordezkaria), AMAIA LAUZIRIKA and. (Getxo Enpresako batzordekidea), CELIA MARAÑON and. (Ekologistak Martxan), MIGUEL ANGEL ROGGERO jn. (Itxartu Taldea). IÑIGO AZKARATE jn. (Gazteen ordezkaria) eta KOLDO NABASKUES jn. (Euskal Kontsumitzaileen Alkarteko ordezkaria)

Getxon, 2022ko apirilaren 5ean, arratsaldeko zazpietan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, eta arestian aipatutako kapitularrek parte hartu dute.

**GAI ZERRENDA**

Bileraren hasieran Eugenia Atinek adierazi du Foroko zenbait kidek ezin etorri izana adierazi dutela.

**1.- Kide berriaren aurkezpena**

Forora ongietorria eman zaio

ordezkari berriari. Ordezkari bakoitzak bere izena eta ordezkatzen duen elkartea edo erakundea zein den esateko aurkezpen erronda bat egin da.

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE**
**(05.04.22)**

CONCEJAL DE SERVICIOS URBANOS AMBIENTALES Y CALIDAD AMBIENTAL:
D. JOSEBA ARREGI

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA DEL FORO:
Dª ARANTZA CABEZA

CONSULTORA:
Dª EUGENIA ATIN

ASISTENTES:

D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente)
Dª MAITE FERNANDEZ (Representante de Basozaleak)
D. JAVIER LOIDI (Persona del mundo de la universidad)
D. EMILIO MARTINEZ (Agenda Escolar 2030 Julio Caro Baroja)
D. ANDEKA ZUBIAUR (Agenda Escolar 2030 Aixerrota)
Dª KARMELE URQUIJO (Representante de Gizatiar),
D. IÑIGO PAMPIN (Lantegi Batuak)

Excusan su no asistencia:
Dª JANIRE OCIO (Concejala del área de infraestructuras, obras y servicios), D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak), Dª AMAIA LAUZIRIKA (Vocal de Getxo Enpresa), Dª CELIA MARAÑON (Ekologistak Martxan), D. MIGUEL ANGEL ROGGERO (Itxartu Taldea). D. IÑIGO AZKARATE (Representante de la Juventud) y D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asociación de Personas Consumidoras y Usuarias Vasca),

En Getxo, a 5 de abril de 2022 se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

**ORDEN DEL DÍA**

Al comienzo de la reunión, Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados.

**1.- Presentación nuevo integrante**

Se da la bienvenida a un nuevo representante al Foro, Iñigo Pampin, de la organización Lantegi Batuak, que representará los intereses de las personas con discapacidad. Se realiza una ronda de presentación donde cada representante indica su nombre y la asociación o entidad a la que representa.

**2.-2022ko martxoaren 3an egin ziren Ingurumeneko Toki Foroko bilkurei dagozkien aktak onestea.**

Aho batez onartu da.

**2.- Aprobación del acta correspondiente a la reunión del Foro Local de Medio Ambiente, celebrada el 3 de marzo de 2022.**

Se aprueba el acta por unanimidad.

**3.- 2030 Agendako (2020-2023ko) Ekintza Planaren gauzapenaren jarraipena.**

Eugenia Atinek adierazi du aurreko bileran utzi genuen gaiarekin jarraituko dugula, hau da, baliabideen balio naturalei eta erabilera jasangarriari lotutako ildo estrategikoetan jasotako ekintzen berrikuspenarekin. Tokiko Agenda 2030aren ekintza-planak 66 ekintza hartzen ditu barne, eta berrikusteke geratu zitzaizkigun 32 ekintzak aztertuko ditugu gaur.

Aurreko bileran, azaldu zen planaren betearazpenaren azken ebaluazioa egin dela udaleko teknikariekin izandako elkarrizketen bidez. Elkarrizketa horietan, ekintza bakoitzaren betearazpen-egoerari buruzko balorazio kualitatiboa egin da.

Jarraian, ekintza guztien errepasoa egin da eta aldi honetako lorpen nagusiak azaldu dira. Eztabaida sortu duten alderdiak jaso dira jarraian. Zehaztasun gehiago jaso nahi izanez gero, erantsitako ebaluazio-txostena aztertzea gomendatzen da.

Horrenbestez, berrikuspenari ekingo zaio berriz **4. ildo estrategikoa** —balio naturalei, biodibertsitateari eta paisaiari buruzkoa— aztertuz. Itsasertza kontserbatzeari buruzko 4.1.1. ekintzari dagokionez, Javier Loidik galdetu du ea egiten ari den jarduketak itsaslabarretako landare inbaditzaileak soilik hartzen dituen barne ala beste zona batzuetan ere jarduten ari den. Josu Atekak erantzun du udalerri osoan jarduten ari dela eta landare inbaditzaileei buruzko berariazko ekintza bat dagoela; hala ere, bereziki aipatu beharrekoak dira itsaslabarretako landare inbaditzaileak, eskalatzaileek egin behar duten lan bertikala baita. Udaberri honetan lana egiten saiatuko da. Horren ildotik, Karmele Urquijok jakin nahi du ea panpa-lezka desagerrarazi daitekeen udalerri osoan. Javier Loidik erantzun du hori edozein udalerriren aukeren gainetik dagoela, asko daudelako eta guztiz inguratuta gaudelako.

Txilardiak mantentzeari buruzko 4.1.3. ekintzari dagokionez, Iñigo Pampinek eskatu du bai hemen, bai udalerriko gainerako tokietan erabiltzen diren kartelak kognitiboki irisgarriak izan daitezen, hau da, pertsona guztiek erraz irakurtzeko eta ulertzeko modukoak izatea, adimen-desgaitasuna duten pertsonak ez ezik, etorkinak eta herritar guztiak oro har aintzat hartuta. Esandakoa jaso du teknikariak.

Karmele Urquijok kartelek arreta deitzen duten diseinu erakargarria izatearen garrantzia nabarmendu du. Javier Loidik iradoki du ahal den neurrian informazioa bildu dadila karteletan, hots, kartel bakarrean gauza bat baino gehiago azaldu ahal izatea estilo homogeneoarekin, hala nola balio geologikoak, eta flora nahiz faunaren balioak. Gainera, era horretan mantentze-lan gutxiago egongo dira. Josu Atekaren arabera, gaur egun kartelak inprimatutako metakrilatozkoak

**3.- Seguimiento de la ejecución del Plan de acción de Agenda 2030 (2020-2023)**

Eugenia Atin explica que en la sesión de hoy continuaremos donde lo dejamos en la anterior reunión, es decir, la revisión de las acciones de las líneas estratégicas relativas a los valores naturales y la utilización sostenible de los recursos. El Plan de Acción de Agenda Local 2030 se compone de 66 acciones y hoy veremos las 32 que nos quedaron por revisar.

En la reunión anterior ya se explicó cómo se ha realizado la evaluación final de la ejecución del Plan a través de entrevistas con los técnicos y técnicas del Ayuntamiento. Durante las entrevistas se ha realizado una valoración cualitativa del estado de ejecución de cada una de las acciones.

A continuación, se hace un repaso de todas las acciones de las líneas estratégicas 4 y 5, destacando los principales logros del periodo. Se señalan a continuación los aspectos que suscitaron el debate y se aconseja analizar el informe de evaluación adjunto para un mayor detalle.

Se continúa la revisión por tanto de la **línea estratégica 4** de valores naturales, biodiversidad y paisaje. Con relación a la acción 4.1.1, sobre la conservación del litoral, Javier Loidi pregunta a ver si se está actuando sólo sobre las plantas invasoras de los acantilados o en otras zonas también. Josu Ateka responde que se actúa en todo el municipio y hay una acción específica de plantas invasoras, sin embargo, las plantas invasoras de los acantilados merecen especial mención porque se trata de un trabajo vertical que tiene que ser realizado por escaladores. El trabajo se intentará realizar esta primavera. En este sentido, Karmele Urquijo quiere saber si es posible erradicar la cortaderia en todo el municipio. Javier Loidi responde que, debido a su elevado número y a que estamos completamente rodeados, está por encima de las posibilidades de cualquier municipio.

Con relación a la acción 4.1.3 de mantenimiento de los brezales, Iñigo Pampin solicita que los carteles que se utilicen aquí y en el resto del municipio sean cognitivamente accesibles, es decir que resulten fáciles de leer y entender para todas las personas, no solo personas con discapacidad intelectual, que también, sino inmigrantes y toda la población. El personal técnico toma nota.

Karmele Urquijo resalta la importancia de que los carteles tengan un diseño atractivo que llame la atención. Javier Loidi sugiere que en la medida de lo posible se pueda aunar información en los carteles, es decir, que en un único cartel se explique más de una cosa con un estilo homogéneo, por ejemplo, valores geológicos y valores florísticos y faunísticos. Además así habrá menos labores de mantenimiento. Según Josu Ateka, los carteles hoy en día son de metacrilato impreso y se hacen labores de

dira, eta gutxienez urtean behin egiten dira mantentze-lanak. Emilio Martinez bat etorri da, eta dio eraginkorra izango litzatekeela karteletan azalpenak konbinatzea, baliabide naturalen gaineko prestakuntzarako sarbide erraza ahalbidetzeko.
Karmele Urquijok jakin nahi du ea irteera ekologikorik egiten ari den eskola-ikasleekin, Getxon hezkuntza-baliabide zoragarriak baititugu. Andeka Zubiaurrek adierazi du hala dela, irteera ugari egiten direla eskola-ikasleekin eta irakasleen ustiapen osoa egiten dela.

Apo lasterkaria babesteari dagokionez (4.1.4. ekintza), Karmele Urquijok galdetu du ea zergatik den horren garrantzitsua. Xabier Buenetxeak erantzun du Bizkaian dagoen populazio bakarra dela eta galzoriko espeziea dela.

4.2.1. ekintzak barne hartzen duen Bolue haranari dagokionez, Javier Loidik adierazi du gune horretan ez dela ohikoa hezeguneak egotea, eta izugarri garrantzitsua den lana egiten dutela intsektuak mantentzeko, zeinen populazioa asko jaisten ari baita; izan ere, intsektu horiek oso garrantzitsuak dira polinizaziorako eta ekosistema osorako. Hortaz, oso ondo dago idoiak sustatzea eta hezegunea lohiz betetzea ekiditea. Xabier Buenetxea bat dator, eta azaldu du lehengo joera idoiak estaltzea eta lehortzea zela, osasungaitzak zirela uste zelako, baina orain gune umelak mantendu behar ditugula.
Emilio Martinezek adierazi du Larrañazubiko errekan jabeak hesiak jarri dituela pasabidean, eta orain buelta handia eman behar dela handik igarotzeko. Jakin nahi du ea bide-zorrik egon behar al den. Josu Atekak adierazi du hala dela, ibai-ibilgutik joan ahal beharko zela, eta ibilgua errespetatzen ez bada URAk hesiak kentzeko aginduko duela. Teknikariek aipatutako arazoa aztertuko dute.
Flora eta faunako inbentarioei buruzko 4.3.1. ekintzari dagokionez, Javier Loidik proposatu du landarediaren (floraren) eta habitaten mapa bakarra egitea, bitan banatzea baino zentzu handiagoa duelako. Intsektuen mapari dagokionez, Xabier Buenetxeak hura gauzatzeko moduari buruz hausnartu du.
Josu Atekak, naturguneen inbentarioari buruzko 4.3.2 ekintzari dagokionez, adierazi du informazio geografikoko sistemaren arabera egingo dela lan. Javier Loidik galdetu du ea zertan datzan elkarlaneko basoa, eta Josu Atekak adierazi du Ingurumen Gelako gune bat dela, non pertsona partikularrek, ikastetxeek eta elkarteek zuhaitz autoktonoak landatzen baitituzte. Toki gehiagotan ezarri daitekeen ekimena da, baina arazoa Getxon espazio publiko gutxi dagoela da.

Azpiegitura berdeei buruzko ekintzan (4.3.5. ekintza), Joseba Arregik azaldu du jarduketetako batzuk gauzatu egin direla. Zehazki, gotorlekua mantentzeko plana dago (2017koa), eta eta planak Punta Begoña proiektua hartuko du barne. Horrez gain, burdinazko gerrikoari buruzko azterlana egin da jada, eta inbentarioan sartu dira lubakiak. Gaur egun, lurperatuta daude, landarediak estaltzen baititu, baina hobe da horrela jarraitzea; izan ere, jende asko igarotzen da handik eta arriskutsua izango litzateke toki zehatzak egokitu barik egotea.

Bide-sare bat sortzeari buruzko 4.3.6. ekintzari dagokionez, Xabier Buenetxeak adierazi du kezkatuta dagoela; izan ere,

mantenimiento por lo menos una vez al año. Emilio Martinez coincide en que sería eficaz combinar las explicaciones en los carteles y así tener un fácil acceso a una formación de los recursos naturales.

Karmele Urquijo desea saber si se están haciendo salidas ecológicas con los escolares puesto que en Getxo contamos con unos recursos educativos magníficos. Andeka Zubiaur confirma que así es, que se hacen muchas salidas con los escolares y se hace una explotación docente completa.

Con respecto a la protección del sapo corredor (acción 4.1.4), Karmele Urquijo pregunta por qué es tan importante. Xabier Buenetxea responde que se trata de la única población que hay en Bizkaia y que está en peligro de extinción.

Pasando al valle de Bolue, en la acción 4.2.1, Javier Loidi comenta que en esta zona no son frecuentes los humedales y que hacen una labor importantísima para preservar los insectos, cuya población está bajando mucho, y que son importantísimos para la polinización y para todo el ecosistema. Así que está muy bien que se promuevan las charcas y se evite la colmatación del humedal. Xabier Buenetxea coincide y explica que antes la tendencia era tapar y desecar las charcas porque se consideraban insalubres pero que ahora debemos preservar las zonas húmedas.

Emilio Martinez comenta que en el arroyo de Larrañazubi, el propietario ha vallado el paso y ahora hay que dar mucha vuelta para pasar. Le gustaría saber si no debería haber servidumbre de paso. Efectivamente, Josu Ateka comenta que por el cauce del río se debería poder ir, URA hará quitar las vallas si no se está respetando el cauce. El personal técnico lo va a mirar.

En lo que respecta a la acción 4.3.1 de los inventarios de flora y fauna, Javier Loidi propone hacer un único mapa de vegetación (flora) y hábitats puesto que tiene más sentido que separarlo en dos. En cuanto al mapa de insectos, Xabier Buenetxea se imagina cómo podría ser llevado a cabo.

Josu Ateka, en la acción 4.3.2 relativa al inventario de zonas naturalísticas, indica que se va a trabajar a nivel GIS. Javier Loidi pregunta a ver en qué consiste el bosque colaborativo y Josu Ateka indica que es una zona en el aula ambiental donde personas particulares, centros educativos o asociaciones plantan algún árbol autóctono. Es una incitativa que se podría implementar en más sitios pero el problema es el poco espacio público que tiene Getxo.

En la acción sobre infraestructuras verdes (acción 4.3.5), Joseba Arregi expone que sí que se han llevado a cabo algunas de las actuaciones. En concreto, existe un Plan de Mantenimiento del Fuerte (de 2017) y que el plan se va a incorporar al proyecto de Punta Begoña. Además, ya está hecho también el estudio del cinturón de hierro, las trincheras están inventariadas; en la actualidad están enterradas por la vegetación pero mejor que siga así de momento puesto que pasa mucha gente y sería peligroso si no están acondicionados los lugares específicos.

Con relación a la acción 4.3.6 sobre crear una red de senderos, Xabier Buenetxea expresa su preocupación porque si se dejan

ibilbide natural gisa uzten baldin badira, ondo, baina harrizko bideak edo asfaltatuta daudenak gaitzen baldin badira, jende gehiegi joan liteke, eta hori arriskutsua izango litzateke, higaduragatik, zaborrengatik, eragozpenengatik eta abarrengatik. Maite Fernandez bat dator eta adierazi du esate baterako udan jende mordoa egoten dela Boluen. Javier Loidik nabarmendu du garrantzitsua dela bide-sare bat antolatzea, dagokion zenbaketarekin, seinaleztapen egokiarekin, eta bideak behar bezala errespetaraziz.

como rutas naturales entonces bien, pero si se habilitan caminos empedrados o asfaltados puede acabar yendo demasiada gente con el peligro que ello conlleva por la erosión, las basuras, las molestias, etc. Maite Fernandez coincide en que por ejemplo en Bolue en verano hay muchísima gente. Javier Loidi recalca la importancia de organizar la red de senderos, con la numeración correspondiente y señalizando bien y haciendo respetar los caminos.

Jarraian, **5. ildo estrategikoa** aztertu da, ingurumen-kalitateari eta baliabideen erabilpen jasangarriari buruzkoa.

Seguidamente, se analiza la **línea estratégica 5** relativa a la calidad ambiental y utilización sostenible de los recursos.

Hondakinak murriztea eta bereiztea bultzatzeko xedearekin (5.3.1. ekintza), Karmele Urquijok adierazi du Romo Kultur Etxean dagoen hondakin organikoak birziklatzeko doako poltsen makina automatikoa ez dela nahikoa ikusten. Erakargarri gisa balio zezakeen, baina lehenengo solairuan dagoenez nahiko ezkutatuta dago. Joseba Arregik adierazi du hor bakarrik jarri zitekeela, egokiena izango zela sarreran jartzea, baina ez dela posible. Hala eta guztiz ere, maiatzean etxeko kanpaina egingo da bereizketa organikoa bultzatzeko; hortaz, herritar guztiek jakingo dute poltsak eskuragarri daudela doan.

Con relación a incentivar la reducción y separación de los residuos (acción 5.3.1), Karmele Urquijo observa que la máquina expendedora de bolsas gratuitas para la fracción orgánica en la Romo Kultur Etxea, no está suficientemente a la vista. Podría servir como reclamo, pero al estar en el primer piso está un poco escondida. Joseba Arregi señala que era el único sitio disponible, idealmente estaría en la entrada pero no es posible. De todas formas, en mayo se va a realizar la campaña a domicilio para promover la separación orgánica por lo que no va a quedar ningún vecino sin saber que las bolsas están disponibles gratuitamente.

Hobari bidezko birziklatze-sistema berria ezartzeari buruzko 5.3.2. ekintzari dagokionez, Joseba Arregik azaldu du ez dela aurreikusten aldi honetan sistema hori abian jartzea. Azaldutakoa ikusita, ebaluazio-agiria zuzendu da.

En la acción 5.3.2 Implantación de un nuevo sistema de reciclaje mediante bonificación, Joseba Arregi explica que no se contempla la puesta en marcha de dicho sistema en este periodo. A la vista de lo manifestado, se corrige el documento de evaluación.

Emilio Martínezek jakin nahi du nork izango duen sarbidea parkimetro batzuetan jarriko diren ingurumen-kalitateko sentsoreen datuetara (5.4.1. ekintza). Joseba Arregik erantzun du oraingoz barne-erabilerarako soilik izango direla datuak, baina aurrerantzean ematen zaien zabalkunde-mota ikusi beharko dela.

Emilio Martínez se interesa por conocer quién tendrá acceso a los datos de los sensores de calidad ambiental que se van a instalar en algunos parquímetros (acción 5.4.1). Joseba Arregi responde que de momento los datos serán de uso exclusivamente interno pero habrá que ver qué tipo de difusión se le da más adelante.

Karmele Urquijok adierazi du Romoko semaforoen denbora-tartea berrikusi behar dela. Bere garaian eskatu zuen foro honetan, eta erantzun zioten semaforo batzuk Leioaren jabetzakoak direla. Alabaina, Gobelaurre parkearen aurrean, eskolen amaieran, dagoen semaforoa Getxorena izan behar da, eta oso denbora gutxi dago gurutzatzeko. Mugitzeko zailtasunak dituztenek oso txarto pasatzen dute beste aldera garaiz heltzeko. Joseba Arregik adierazi du gai delikatua dela eta oreka bat lortu behar dela; izan ere, denbora gehiegi ematen bada, semaforoa ez errespetatzeko arriskua egongo da. Azken finean, helburua da semaforoak kentzen joatea oinezkoen alde, baina apurka-apurka. Semaforo horren iraupena berrikusiko da teknikarien lantaldearekin, eta beharrezkoa bada denbora-tartea handituko da.

Karmele Urquijo señala que es necesario revisar el espacio temporal de los semáforos de Romo. En su día ya lo pidió en este Foro y se respondió que algunos semáforos pertenecen a Leioa. Sin embargo, el semáforo al final de las escuelas que está en frente del parque Gobelaurre, ese tiene que ser de Getxo y el tiempo para cruzar es muy escaso. La gente con dificultades de movilidad lo pasa muy mal para llegar a tiempo al otro lado. Joseba Arregi indica que es un tema delicado y hay que conseguir un equilibrio puesto que si se da demasiado tiempo entonces se corre el riesgo de no respetar el semáforo. Al final el objetivo es ir quitando semáforos en favor del peatón, pero poco a poco. Se revisará con el equipo técnico la duración de este semáforo y si es pertinente se ampliará.

Javier Loidik 5.5.2. ekintzari heldu dio. Testuinguru horretan, aipatu du iturri berriztagarrietatik datorren eta % 100ean berdea den energia kontratatzen jarraitu behar dela, eta ez daki zergatik ez ote ditugun Getxoko teilatu guztiak eguzki-plakez beteta. Andeka Zubiaurrek adierazi du duela oso gutxira arte autokontsumoa zigortzen zela. Ingurumen Arloa harremanetan jarri da Energiaren Euskal Erakundearekin, energia-komunitateei buruz gehiago jakiteko. Xabier Buenetxeak adierazi du teilatuetan den bitartean ondo deritzola, baina ez

Javier Loidi, en el contexto de la acción 5.5.2. Continuar contratando energía verde 100% procedente de fuentes renovables, no se explica cómo no tenemos todos los tejados de Getxo llenos de placas solares. Andeka Zubiaur indica que hasta hace bien poco el autoconsumo estaba penalizado. El área de medio ambiente ha contactado con el EVE para saber más sobre las comunidades energéticas. Xabier Buenetxea señala que siempre que sea en los tejados le parece bien, pero que no vayamos a grandes parques fotovoltaicos que están destrozando

dela panel fotovoltaiko handien aldekoa, naturguneak hondatzen baitituzte. Energia berriztagarrien alde ezkutua da. Bestalde, Xabier Buenetxeak nabarmendu du batzuetan ona dela energia-efizientziarik ez egotea, esate baterako teilen zuloetan dauden mozolo-habiengatik. Alabaina, hegaztiei habia egitea ahalbidetzen dieten huts horiek sortzeko metodoak daude, berriztatutako teilatuetan ere jar daitezkeenak.
Azkenik, Joseba Arregik, antenen inbentarioaren kontrasteari buruzko 5.6.1 zenbakidun azken ekintzari dagokionez, horren egokitasunari buruzko zalantzak planteatu ditu. Koldo Nabaskuesekin argitu beharko litzateke jarduketa-eremua, jada Ministerioak egin duena berriro ez egiteko.

parajes naturales. Es la cara oculta de las renovables. Por otro lado, Xabier Buenetxea destaca que la des-eficiencia energética a veces es buena, en lo que se refiere por ejemplo a los nidos de mochuelos en los agujeros de las tejas. Pero hay métodos para crear esas imperfecciones que permiten a las aves anidar, también en los tejados renovados.

Finalmente, Joseba Arregi, en la última acción 5.6.1 sobre el contraste del inventario de antenas, plantea dudas con relación a su idoneidad. Habría que aclarar con Koldo Nabaskues el ámbito de la actuación para no realizar lo que ya está hecho por el Ministerio.

**4.- Galde-eskeak.**

Maite Fernandezek galdetu du ea noizbait hiri-garraioaren gaia jorratu den Getxon, garraio publikorik ez duten zenbait gune baitaude, hala nola Kirol Portua eta Galea. Karmele Urquijok adierazi du ados dagoela, eta Getxon populazio zaharra dagoela aintzat hartuta interesgarria izango litzatekeela zerbitzu hori izatea. Joseba Arregik berretsi du hiri-mugikortasun jasangarriko planean sakon aztertu dela gaia, eta garraio publikotik oinez zazpi minutura baino gehiagora dauden hiru zona aipatu ditu: Ereaga, Galea eta Landene. Adituek ez dute aholkatzen udalerri osoa zeharkatzen duen hiri-autobusik ezartzea, metroa eta Bizkaibus zerbitzua (hogei linea) ditugulako, baina aztertu daiteke zona zehatz horietarako autobusa ezartzea. Kontuan hartu beharreko beste gai bat da maiztasuna; izan ere, frogatuta dago hamabost minutu baino gehiago itxaron behar izatekotan jendea autoz joaten dela itxaron behar ez izateko. Javier Loidik eta Joseba Arregik futuristagoak diren ideiak aipatu dituzte: monorrail bat edo gidaririk gabeko ibilgailu autonomo bat, erakarpen turistikoak ere izango liratekeelako.

Iñigo Pampinek proposatu du Ingurumen Gelak aste barruan ere antolatzea jarduerak, gutxienez hilabetean behin edo hiru hilabeterik behin, Andeka Zubiaurrek iradoki bezala. Teknikariek Ingurumen Gelara helaraziko dute eskaera.

Aurreikusi da foroaren hurrengo bilera maiatzean izatea.

20:45ean, bilera amaitutzat jo da.

**4.- Ruegos y preguntas.**

Maite Fernandez pregunta a ver si alguna vez se ha planteado en Getxo el tema del transporte urbano ya que hay ciertas zonas como son el Puerto Deportivo y La Galea que no cuentan con transporte público. Karmele Urquijo coincide en que con una población envejecida como la de la Getxo, sí que sería interesante contar con tal servicio. Joseba Arregi confirma que el PMUS (Plan de Movilidad Urbana Sostenible) analiza este tema en profundidad e identifica 3 zonas que quedan a más de 7 minutos a pie del transporte público, que son efectivamente Ereaga, la Galea y Landene. Los expertos desaconsejan un bus urbano que recorra todo el municipio puesto que contamos con Metro y Bizkaibus (20 líneas), pero sí que podría considerarse un bus para estas zonas concretas. Otro tema es la frecuencia, que está demostrado que, si la frecuencia es superior a 15 minutos, la gente se desplaza en coche por no esperar. Javier Loidi y Joseba Arregi mencionan ideas más futuristas como un monorail o un vehículo autónomo sin conductor que serían a la vez atractivos turísticos.

Iñigo Pampin propone que el Aula Ambiental organice actividades también entresemana, por lo menos una vez al mes o trimestralmente como sugiere Andeka Zubiaur. El personal técnico trasladará la petición al Aula.

La próxima reunión del Foro será previsiblemente en mayo.

A las 20:45 horas se da por finalizada la reunión.